INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2018 MAI. MAY. 02

SARRERA | IRTEERA
Zk. 352703 | Zk.

Bizkaia
ekonomi eta lurralde garapena sustatzeko saila
departamento de desarrollo económico y territorial

Atala/Sección
Eskaria Kudeatzeko atala
Sección de Gestión de la Demanda

Gure erreferentzia /N. referencia: MAC/apo
Espte./Expte:: 2018/00029

Gaia/Asunto:

EAEko Lurralde Antolaketarako Gidalerroen berrikuspena
Revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio del País Vasco

Hartzailea-Destinatario/a:

EUSKO JAURLARITZA
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila
Dpto. de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda-
Sailburua /Consejero
Donostia-San Sebastián, 1
01010 VITORIA-GASTEIZ

Bizkaia foru aldundia diputación foral
ekonomi eta lurralde garapena sustatzeko saila departamento de desarrollo económico y territorial

24 ABR 2018

IRTEERA / SALIDA Zk. / Nº 4916 G07 D04
SARRERA / ENTRADA Zk. / Nº

Bilbo, 2018ko apirilaren 20a

2018ko martxoaren 7an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren komunikazioa jaso genuen Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sail honen erregistroan. Komunikazio hori "EAEko Lurralde Antolaketarako Gidalerroen berrikuspena" espedienteari lotuta zegoen, eta hona hemen bere xedea: dagozkion alegazioak, oharrak eta iradokizunak egin zitezen, bi hilabeteko epean, Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 10.7. artikuluak, hasierako onespenaren ondoko jendaurreko informazioaren izapideari zegokionez, araututakoarekin bat eginez.

Idatzi honek hainbat aurrekari sektorial ditu Lurralde Antolaketarako Gidalerroen berrikuspena izapidetzeari dagokionean: 2016ko udan, aurrerapena idaztean, sail honek jakinarazitako ekarpenak; eta 2017ko ekainaren 8an, hasierako onespena eman aurretik erakunde publiko zein pribatuei kontsulta egiteko izapidean, igorritako idatzia.

<u>LURRALDE ANTOLAKETARAKO GIDALERROEN HASIERAKO ONESPENAREN DOKUMENTUA AZTERTZEA (2018ko urtarrila)</u>

En Bilbao, el 20 de abril de 2018

Con fecha de registro de entrada 7 de marzo de este año se recibe en este Departamento de Desarrollo Económico y Territorial comunicación del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco, en relación con el expediente de "Revisión de las Directrices de Ordenación Territorial (DOT) del País Vasco", al objeto de que se puedan formular las alegaciones, observaciones y sugerencias que se estimen oportunas en un plazo de dos meses, de conformidad con lo que regula el artículo 10.7 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, en su trámite de información al público tras su aprobación inicial.

El presente escrito tiene como antecedentes sectoriales en la tramitación de esta Revisión de las DOT, las aportaciones que se notificaron por parte de este Departamento durante la redacción del Avance en verano del año 2016, y el escrito remitido el 8 de junio del 2017 en el trámite de consultas previas a la entidades públicas y privadas con antelación a su aprobación inicial.

<u>ANÁLISIS DEL DOCUMENTO APROBACIÓN INICIAL DE LAS DOT (Enero 2018)</u>

Hasieran onetsitako dokumentuaren edukia (2018ko urtarrila) neurri handi batean bat dator lehenago, aurrerapen fasean, aztertutakoan (2016ko azaroa) jasotakoarekin, "Lurralde Gidalerroetan" adierazitakoarekin izan ezik; izan ere, gidalerroak, lehen, I. kapituluan, Memoria izenekoan, zeuden jasota, eta orain, berriz, II. kapituluan, Araudia izenekoan, bildu dira.

El contenido del documento aprobado inicialmente (Enero de 2018) es prácticamente similar al anteriormente analizado (Noviembre 2016) en su fase de Avance, a excepción de que las "Directrices Territoriales", que antes estaban englobadas en el capítulo I. Memoria, pasan al capítulo II. Normativa.

2017ko ekainaren 8an bidalitako idatzian aurrerapen-dokumentuari lotuta jasotako ekarpenek bi alderdi zituzten aztergai, eta Eusko Jaurlaritzak tratamendu ezberdina eman die horiei:

En referencia a las aportaciones que se manifestaron en el escrito remitido el 8 de junio del 2017 sobre el Documento de Avance, que versaban sobre dos aspectos, el tratamiento por parte del Gobierno Vasco ha sido diferente:

A. **"Hiri Sistema: Eraldaketarako Ardatzak" alderdiari dagokionez**, onartu egin dira egindako bi proposamenak.

- Arratia eraldatzeko ardatzari dela-eta, aurreikusitako Artea eta Areatza arteko ekobulebarraren bide-trazadura aldatzea, eta N-240 errepidetik BI-3530 errepidera birbideratzea.
- Dagozkien sustapen-arloen LPPetan, eraldaketarako ardatzak exekutatzeko eta finantzatzeko neurriak hartzea, aplikatu beharreko arauen 9. artikuluan, *"Eraldaketarako ardatzen gidalerroak"* izenekoan, jasotako xedapen lotesle gisa.

A **.En cuanto al "Sistema Urbano: Los Ejes de Transformación"**, se ha procedido a admitir las dos propuestas solicitadas.

- Cambio de trazado en el ecobulevar previsto para el Eje de Transformación del Arratia, entre Artea y Areatza, redirigiéndolo de la N-240 a la BI-3530.
- Inclusión de medidas de ejecución y financiación de los ejes de transformación en los correspondientes PTP de las Áreas Funcionales, como determinación de carácter vinculante definida en el art. 9 *"Directrices en materia de Ejes de Transformación"* de las Normas de Aplicación.

B. **"Lurralde Antolaketarako Gidalerroen Harremanetarako Sistema (9. atala, Mugikortasuna eta Logistika" izenekoari dagokionez**, gaur egungo dokumentuan (2018ko urtarrila) ez da aldaketarik izan aurrekoarekiko, eta Lurralde Antolaketarako Gidalerroen

B **En cuanto al "Sistema Relacional de las DOT (apartado 9 Movilidad y Logística)"**, el documento actual (Enero de 2018), al igual que el anterior, no ha variado nada al respecto en su discurso, y sigue suscribiendo el modelo territorial para el sistema de movilidad de las DOT

mugikortasun sistemari dagokionean 97ko lurralde eredua berretsi da, baita antolaketa sektorialerako tresnen bidez garatutakoak eta onartutakoak ere: EAEko Errepideen Plan Orokorra eta Lurralde Historikoetako Errepideen Lurralde Plan Sektoriala. Horiek, aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoa antolatuta dagoen sustapen-arloen lurralde-plan partzialetan jaso dira.

del 97, y por consiguiente a los desarrollados y aprobados a través de sus instrumentos de ordenación sectoriales: Plan General de Carreteras del País Vasco y Plan Territorial Sectorial de Carreteras de los Territorios Históricos, y que a su vez han sido implantados en los respectivos Planes Territoriales Parciales de las Áreas Funcionales en que se organiza la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Alde horretatik, orain arte planifikatutako eta exekutatutako errepide sistemaren umotasuna lortzeko, 97ko Lurralde Antolaketarako Gidalerroetatik ondorioztatutako irizpideei jarraitu zaie, eta, bereziki, horien baitako *"Errepideen Gidalerro Bereziak"* delakoei (5. atala). Gidalerro horiekin bat eginez, aipatutako eredua egituratzen zen, lotura motaren arabera; aztergai dugun dokumentuan eskema horri eutsi zaio:

Y en este sentido la madurez del sistema viario ejecutado y planificado hasta la fecha se ha realizado siguiendo los criterios emanados de las DOT del 97, y en particular de las *"Directrices Particulares. Carreteras"* que se incluían en las mismas (Apartado 5), y en las que se estructuraba el modelo atendiendo al tipo de conexión, esquema por otro lado que sigue manteniéndose en el documento actualmente analizado, a saber:

1. Nukleo Anitzeko Euskal Hiriburu Sistematik kanpoko loturak
2. Nukleo Anitzeko Euskal Hiriburu Sistemaren barneko loturak
3. Sustapen-arloen barneko loturak
4. Pasaia intereseko itsasertzeko ibilbideak

1. Conexiones externas del Sistema Polinuclear Vasco de Capitales
2. Interconexiones del Sistema Polinuclear Vasco de Capitales
3. Interconexiones de las Áreas Funcionales
4. Recorridos costeros de interés paisajístico

Lurralde Antolaketarako Gidalerroen berrikuspenean, errepide eredua errepideen LPP eta LPSetan behar bezala garatu dela ondorioztatzean, ez da gai horretan sakondu, kontu hori aipatutako planetan behar bezala landu dela jo baita.

La Revisión de las DOT al considerar que el modelo de carreteras se ha desarrollado de manera adecuada en los PTP y PTS de Carreteras, no profundiza sobre esta temática al considerar que está suficientemente atendida en los mismos.

Gai horri lotuta egindako aurreko gogoetan, sail honek ekainaren 8ko idatzian jasotakoan, *"II. atala:*

La consideración anterior que este Departamento recogía en su escrito del 8 de junio sobre este asunto, iba

*Helburuak"* aldatzeko proposamena bakarrik jaso zen. Bertsio berrian (2018ko urtarrilekoan) esaldi honi eutsi zaio: "*EAEko errepideen mapa nagusiki bukatutzat jotzea*". Gure iritziz, hirugarrenek interpretazio subjektiboak egitea ekar ditzake horrek, Lurralde Antolaketarako Gidalerroetatik eratorritako hirigintza-antolamendurako nahiz -plangintzarako beste tresna batzuk garatzean edo berrikustean.

Horrexegatik nabarmentzen dugu testua aldatu beharko litzatekeela, hain zuzen ere, argitzeko planifikatutako errepide eredua dela nagusiki bukatutzat jo daitekeena.

Azaldutakoa alde batera utzita, idatzi honen hasieran aurreratu denez, lehen dokumentuaren memorian ageri ziren lurralde gidalerroak araudian jaso dira orain. Errepide mugikortasunari buruzko atalean (26. artikulua) ezarritakoarekin bat eginez, gomendio izaera dute, baina administrazio eskudunak berariaz egiaztatu beharko du hartutako erabakia.

Lurralde gidalerro horietan, ezarritako errepide sistema antolatzeko eredua definitzean, aldaketa bat izan da. Hasieran, 97ko Lurralde Antolaketarako Gidalerroen eredua aipatu eta errepide loturen osaera eskemaren azalpena eman zen (2016ko azarokoa); orain, berriz, gaur egungo dokumentuan (2018ko urtarrilekoa), lotura bakoitza definitu da, ardatzez ardatz, 97ko Lurralde Antolaketarako Gidalerroen 5. ataleko "Errepideen Gidalerro Bereziak" delakoetan aurreikusitako eskemari jarraituz; hala ere, dokumentu horretan jasotako jarduketetako batzuk ez dira transkribatu.

dirigida únicamente a la propuesta de modificación en la redacción del apartado "*II. Objetivos"*. En la nueva versión (Enero 2018) se sigue manteniendo la frase: "considerar *mayormente culminado el mapa de carreteras de la CAPV*", que a nuestro juicio podría conllevar interpretaciones de carácter subjetivo por parte de terceros durante el desarrollo o revisión de otros instrumentos de ordenación o planeamiento urbanístico derivados de las DOT.

Es por ello que nos reiteramos en que se modifique la redacción del texto al objeto de clarificar que el modelo de carreteras planificado es el que se pueda considerar mayormente culminado.

Al margen de lo anterior, como ya se avanzaba al principio de este escrito, las Directrices Territoriales que antes estaban en la Memoria del documento, han pasado a la Normativa, que para este apartado de Movilidad Viaria (art. 26), son de carácter de recomendación, pero debiendo justificarse de forma expresa la decisión que se adopte por la Administración competente.

En dichas Directrices Territoriales cuando se define el modelo de ordenación del sistema viario establecido, se ha pasado de referenciarlo al modelo de las DOT del 97 con la definición del esquema de estructuración de las conexiones viarias (Nov 2016), a definir en el documento actual (Enero 2018) cada una de las conexiones, eje por eje, siguiendo el esquema previsto en las "Directrices Particulares. Carreteras" del Apartado 5 de las DOT del 97, pero habiéndose olvidado de transcribir parte de las actuaciones recogidas en el mismo.

Bizkaia
ekonomi eta lurralde garapena sustatzeko saila
departamento de desarrollo económico y territorial

Gure iritziz, egokiagoa litzateke aurreko idazketa orokorra (2016ko azarokoa) bere horretan uztea edo, bestela, *"Errepideen Gidalerro Bereziak"* delakoetan ageri diren lotura guztia jasotzea.

A nuestro entender parecería más adecuado dejar la redacción anterior (Nov 2016) de manera generalista o en su defecto incorporar todas las conexiones relacionadas en las citadas "Directrices Particulares. Carreteras" de las DOT del 97, que de acuerdo a la nueva revisión, es el modelo que se reafirma.

Adeitasunez,

Atentamente,

Sin. /Fdo: Jon Larrea Arrutia
Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako zuzendari nagusia
Director General de Infraestructuras y Desarrollo Territorial

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila
Departamento de Desarrollo Económico y Territorial